

ERABAKIA, 2018ko otsailaren 14koa Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena, Horren bidez, BIZKAIKO CAMPUSEKO BIBLIOTEKA Ikastetxe edo Zerbitzurako F 1171 Bibliotekako atalaren arduraduna lanpostua aldi batez eta zerbitzu betekizunetan betetzeko deialdia ebatzi da.

GERTAKARIAK

Lehenengoa.-Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2018ko urtarrilaren 4ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen

Bigarrena.-Gerentearen erabakiaren bidez, 2018ko otsailaren 1ekoa , aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

Hirugarrena.- Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Honako arau hauek dira aplikagarri:

- Urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea (2015eko urriaren 2an EAOn argitaratua).

- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAan argitaratua).

- Akordioa, 2014ko uztailaren 1ekoa, AZP funtzionarioaren plangintza batzordearena, AZP funtzionarioari zerbitzuen betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko buruzkoa Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak berretsia (2014ko abuztuaren 27ko EHAA)..

- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

Bigarrena.- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere,gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2017ko urtarrilaren 25eko errektorearen erabakiaren bidez (2017ko otsailaren 3ko EHAA), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

Hirugarrena.- Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa izango da. Akordio hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAA).

Laugarrena.- Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak baloratzeko zehaztutako baremazioaren arabera puntu gehien lortzen dituen izangaia eta, betiere, laugarren artikuluan adierazitako hurrenkerari jarraituko zaio hautaketa egiterakoan. Hautatutako pertsona adierazitako epean hasiko da zerbitzu betekizunen xede den lanpostuan edo eginkizunetan.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau,

ERABAKI DU

Lehenengoa: Deialdi honetako lanpostuan hautatutako pertsona bitarteko funtzionarioa izendatzea, erabaki honetako l. eranskinean jasota dauden baldintzetan.

Bigarrena.- Izendapena 2018ko otsailaren 15eko ondorio dataz egitea.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean (Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak).

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, dagozkien Zerbitzuko Buruei edo Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epeategietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Bosgarrena.- Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epeategietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2018ko otsailaren 14an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

UPV/EHUko GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteché





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

I. ERANSKINA ZERBITZU BETERIZUNA

2018/01/4

Esleipenduna:	JUAN JOSÉ MONTERO GARCIA
Lanpostuaren Izena:	Bibliotekako atalaren arduraduna
Lanaldia:	Arautua
Eref.:	F 1171
Zenbatgarrena:	14
Maila:	22
Taldea:	B
Eskala:	Artxibo, Biblioteka eta Museoetako Laguntzailea
H.E.:	3; 2015eko irailaren 30a
Langunea:	BIZKAIKO CAMPUSEKO BIBLIOTEKA
Campus:	BIZKAIA
BE:	
Ondorio data:	2018ko otsailaren 15a

